

**ALDERDI POLITIKOekin IZANDAKO BILEREN BALORAZIOA**
VALORACIÓN DE LAS REUNIONES CON LOS PARTIDOS POLÍTICOS

2024-07-17 Vitoria-Gasteiz 17-07-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Jaun-andreok, egun on guztioi eta eskerrik asko gaurko deialdiari erantzuteagatik!
Ondo dakizuen, egunotan Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politiko nagusien ordezkariekin bilerak izan ditut. Balorazioa eskaintzeko deitu zaituztegu. Lehendakari kargua zin egin nuenean konpromiso argia hartu nuen gizartearen aurrean: elkarlanaren bidea jorratzea. Batzen gaituena lehen egunetik identifikatzea eta oposizioari eskua luzatzea. Hori izan zen nire konpromiso pertsonala. Zintotasunez esaten dut: politika egiteko modu horretan egiazki sinisten dut. Izan ere, politika adostasunak bilatzeko lanabesa izan beharko luke, ez desadostasunak agerian uzteko erreminta. Eta lehen unetik praktikara eraman dugu. Lehen mezu modura eskerrak eman nahiko nizkieke Ajuria Eneara hurbildu diren ordezkari politiko guztiei. Eskerrik asko benetan. Ez da sekreturik egon. Ondoren izan dituzten agerraldi publikoetan zabaldu dituzten mezuak eta nirekin partekatu dituztenak oso antzekoak izan direlako. Eskertzekoa bezain ezinbestekoa da jarrera hori. Uste dut mezu positiboa helarazten ari garela euskal gizarteari. Bilera hauek guztiak bukatuta ondorio nagusi batera iritsi naiz: Euskadin badugu politika egiteko modu eraikitzailea. Gure gizartea sendotzeaz gain, uste dut demokrazia bera indartzen ari garela. Hala ere, hasieran ikusitako jarrera hau datozen urteotan ere mantentzen dela ikusi nahiko nuke. Arrazoa bistakoa da: adostasunetara iristeko bi aldeek borondatea erakutsi behar dute. Bilera hauetan gaien errebaso orokorra egin ahal izan dugu eta, nire aldetik, bi dokumentu nagusi jarri ditut mahai gainean:

- Euskal Osasun Sistemaren Gaietako Herri Itunerako planteamendua eta bide-orria, eta
- Lehentasuneko gaien dokumentua.

Iritziak iritzi eta lehentasunak lehentasun, uste dut gehienok bat etorri garela planteatutako gaiekin orokorrean. Bada, beraz, elkarlanerako oinarri sendoa eta Eusko Jaurlaritzatik dugun onena emango dugu hori bideratzen saiatzeko.

Legebiltzarreko inbestidura plenoko hitzaldian demokraziaren garrantzia nabarmendu nuen.

Hurrengo urteetan, eta munduko leku askotatik datozen olatu antidemokratikoen aurrean, demokraziaren alde lan egin beharko dugu. Gure indar guztiekin.

Demokrazia biziberritzen inbertitzen dugun guztia askatasunean, giza-duintasunean, ongizatean eta justizia sozialean inbertitzea da.

Hori horrela, eta alderdien konpromisoa lortzeko helburuarekin, irailaren hasieran Politikan Aritzeko Etikarako Euskal Itunaren proposamena mahai gainean jarriko dut eta horrela helarazi diet alderdi politiko guztiei.

Desde el primer día que adquirí el firme compromiso como Lehendakari de intentar ejercer la política con la mano tendida, decidí aparcar las diferencias para buscar y potenciar aquello que nos une.

Es lo que he tratado de hacer durante las reuniones que he mantenido con las y los representantes de las principales formaciones políticas con representación en el Parlamento Vasco.

Lo digo con sinceridad: agradezco la actitud y la predisposición que todas las formaciones políticas han mostrado durante estos últimos días.

Creo que esto es lo que de verdad nos demanda la sociedad vasca. Este es el verdadero mandato recibido desde las urnas.

Estamos demostrando que en Euskadi tenemos una manera distinta, diría que más constructiva de entender la política.

Debemos extender esta forma de trabajar también a los próximos años. De nada sirve empezar con buen pie si la actitud cambia de la noche a la mañana. La sociedad no lo entendería. Todas y todos sabemos que dos no llegan a un acuerdo si la otra parte no quiere. Sigamos por el buen camino.

En las reuniones mantenidas he compartido dos documentos:

- Las bases y la hoja de ruta para lograr un Pacto de País sobre nuestro Sistema de Salud, y
- Los principales retos en los que en mi modo de ver Euskadi debe trabajar en los próximos años.

En cuanto al Pacto de Salud, he planteado una metodología de trabajo dividido en 5 bloques.

- Primero: el punto de partida. Ha sido un documento que se ha trabajado desde el Departamento de Salud, con el Consejero y su grupo de trabajo al frente, en donde hemos realizado el ejercicio de identificar los puntos de encuentro en los distintos programas electorales de todos los partidos políticos. Y así hemos identificado seis grandes elementos en los que entendíamos que hay puntos de encuentro.
- Segundo: contenidos. Hemos identificado cuatro grandes ámbitos: diagnóstico, principios sobre el sistema vasco de salud, estrategia e iniciativas principales para abordar el pacto, evaluación y gobernanza.
- Tercero: participantes. Gobierno Vasco, partidos políticos, sindicatos de clase y también corporativos, universidades, colegios profesionales y pacientes.
- Cuarto: plazos. Nos hemos marcado un margen de 6 meses para lograrlo.
- Quinto: Arranque. Para la primera quincena de septiembre el Consejero de Salud convocará la Mesa donde presentará un calendario específico, una metodología específica y los primeros documentos para su debate.

Los partidos políticos, todos ellos, han mostrado una excelente predisposición a participar en este proceso y estoy seguro de que las y los demás participantes también lo harán. Hoy continúo como bien conocen con esa ronda.

Euskadi merece este gran pacto de salud. Hagámoslo posible.

Bestalde, lehentasunezko gaiak ere partekatu egin ditugu. 6 hauek izan dira nire proposamenak, modu irekian planteatu egin ditudanak:

- Estatutu itun berri bat lortzea
- Belaunaldi arteko elkartasuna solidaritatea
- Hezkuntza legearen garapena
- Trantsizio energetikoa eta legeberriaren garapena
- Euskarari jautsi bat emateko aukera, eta
- Etika eta demokraziarako euskal ituna

Alderdiek gai hauek ondo hartu dituzte. Hala ere, egia da fokoa edo indarrak non jarri adierazterakoan ezberdintasunak izan ditugula, normala den bezala.

Benetan uste dut gure gizartearen aniztasuna Legebiltzarrean ezin hobeto ordezkaturik dagoela eta Ajuria Enean egon diren ordezkariak aniztasun hori bileretan ondo islatu dute. Elkarlanerako prestutasunarekin. Errespetu osoz batzuek lehentasun gehiago

eman diote gai batzuei, beste batzuek beste batzuei baina orokorrean gaiak amankomunak izan dira.

El objetivo de esta primera ronda era uno: escuchar lo que cada una y cada uno quería poner sobre la mesa. Y hacerlo con libertad y sinceridad. Así lo hemos hecho.

Me comprometo a trabajar y a explorar todas y cada una de las cuestiones planteadas. Y hacerlo escuchando siempre a la sociedad vasca.

Pero repito, es fundamental que mantengamos esta predisposición para el acuerdo. Es lo que la sociedad nos demanda. Debemos seguir así.

En el pleno de investidura celebrado el 22 de junio destacué que la democracia se jugaba mucho los próximos años.

Las corrientes antidemocráticas amenazan nuestra convivencia y derechos. Por esta razón en septiembre, y así se lo adelanté a todos los partidos políticos, propondré al conjunto del arco parlamentario vasco firmar un Pacto ético para el ejercicio de la política en Euskadi.

Honenbestez, irailaren hasieran ere Osasun Itunerako mahaia eratuko dugu lehenbailehen lanean hasi dadin.

Eta, bestetik, erronda honetan planteatu ditugun lehentasunezko gaiak elkarlanean jorratzeko planteamendu konkretuak aurkeztuko ditugu.

Eskerrik asko zuen arretagatik eta zuen esanetara nauzue.